# Lanbide Heziketaren III. Erakusketak bisitarien errekorra izan du



BEC

# Récord de visitantes en la III Muestra de Formación Profesional

**Azaroaren 7tik 11ra Bilbao Exhibition Centre-n egindako Lanbide Heziketa Erakusketaren hirugarren edizioak arrakasta handia izan zuen, eta 32.500 bisitari izan zituen. Bost egunez, 350 irakaslek, 750 ikaslek, eta 37 ikastetxek, 21 lanbide-arlotako ordezkari gisa, hartu zuten parte erakusketa honetan, helburua herritarrei prestakuntza-eskaintza honen egungo egoera, eta lan munduarekin duen harremana hurbiltzea izanik.**



**La tercera edición de la Muestra de Formación Profesional, que tuvo lugar en el Bilbao Exhibition Centre entre el 7 y el 11 de noviembre, fue muy exitosa y obtuvo nada menos que 32.500 visitantes. A lo largo de cinco días, 350 profesores y profesoras, 750 alumnos y alumnas, y 37 centros en representación de las 21 familias profesionales participaron en esta muestra, cuyo objetivo fue acercar a la población el panorama actual de esta oferta formativa, así como su relación con el empleo.**

Egunero batez beste 6.500 pertsona pasa ziren BECeko erakusketatik! Hantxe, ikasleek egiten duten lanaz gain, Lanbide Heziketaren esparruan aplikatzen ari diren material eta berrikuntza teknologiko berriak ere ikusteko aukera izan zuten.

Erakusketak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko azken ikasturteetako ikasleen, beren gurasoen eta, orokorrean, herritarren esku jarri zituen LHri aurre egiteko baliabide tekniko eta bide berriak, bere lan irteerak ziurtatu zitzaten.

Gauza berri moduan, lehen aldiz Euskal Autonomia Erkidegoan, trebetasun eta abilezien lehiaketa antolatu zen, LHko euskal ikasleen artean, Fabrikazio Mekanikoaren eta Elektrizitate eta Elektronikaren (Automatismo Industrialak) eta Irudi Pertsonalaren lanbide-arloetan, duten lan-munduratze handia dela eta.

Una media de 6.500 personas pasó cada día por la muestra del BEC! Allí pudieron presenciar los trabajos que desarrollan los alumnos y alumnas, así como conocer los nuevos materiales e innovaciones tecnológicas que se están aplicando en el campo de la Formación Profesional.

La muestra puso a disposición del alumnado de los últimos cursos de la Enseñanza Secundaria Obligatoria y de Bachillerato, así como de sus padres, madres y población en general, recursos técnicos y nuevas formas de afrontar la FP, para poder comprobar por sí mismos sus salidas laborales.

Como novedad, por primera vez en la Comunidad Autónoma Vasca, se organizó una competición sobre destrezas y habilidades, entre el alumnado vasco de los centros de FP, en las familias profesionales de Fabricación Mecánica y Electricidad y Electrónica (Automatismos Industriales) e Imagen Personal, por su alto grado de inserción laboral.







Mota askotako ekimenak antolatu ziren erakusketan EAEko Lanbide Heziketaren berri emateko.











Lehen aldiz EAEn ikasleen arteko trebetasunei txapelketa egin da laneratze-maila altua duten lanbide-alorretan.











## Ateak zabalik

Euskadin, Lanbide Heziketa pertsonak lan-mundura sartzeko eta itzultzeko ate nagusi bilakatu da. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailetik, Lanbide Heziketa eraginkorraren alde egiten dugu, gai izango dena, erreakzio-ahalmenarekin, gertatzen ari diren aldaketen aurrean lan-merkatuak dituen espezializazio malguko eta kalifikazio altuko beharrei erantzuteko. Gainera, LHk ikasleriaren eta familien prestakuntza eta lanbide aukerei erantzun behar die, eta baita irakasleriaren lanaren poztasunari ere.

Testuinguru honetan, joan den azaroan, Barakaldoko BEC!-n Lanbide Heziketaren Hirugarren Erakusketa ospatu zen, aldez aurretik pentsatutako bisitarien kopurua gainditu zuena, 32.500era helduz. Nabarmentzekoa da ere erakusketa honetan ikasleek izandako parte-hartze handia. EAEn, lehen aldiz, trebetasun eta abilezien lehiaketa egin da, hiru lurralde historikoen LHko ikastetxeetako ikasleen artean, Fabrikazio Mekanikoaren eta Elektrizitate eta Elektronikaren (Automatismo Industrialak) eta Irudi Pertsonalaren lanbide-arloetan.

Topaketa "ateak zabaltzeko egun" handi bilakatu zen berriro ere, non aukera izan genuen, era pozgarri batean, lanbide-arlo guztiak eta Euskadiko Lanbide Heziketako ikastetxeen eskaintzaren aberastasuna zabaltzeko. Erakusketa berri honen bidez, Finlandia, Danimarka, Mexiko eta Txileko ikastetxeetako ordezkariak bildu zituena, berriro ere argi utzi dugu, Lanbide Heziketak Euskadin duen irudia oso ona dela.

## Puertas abiertas

En Euskadi, la Formación Profesional se ha convertido en la puerta principal para la integración y la reincorporación de las personas en el mundo laboral. Desde el Departamento de Educación, Universidades e Investigación apostamos por una Formación Profesional que responda, con capacidad de reacción, a las necesidades de especialidades flexibles y de alta calificación que el mercado de trabajo solicita ante los rápidos cambios que se están produciendo en la misma. Además, la FP debe responder a las expectativas de formación y de empleo del alumnado y de las familias, así como a la satisfacción en el trabajo del profesorado.

En este contexto, el pasado mes de noviembre se celebró la Tercera Muestra de Formación Profesional en el BEC! de Barakaldo, que superó el número de visitas previstas, llegando a 32.500. Esta muestra se ha destacado, también, por el alto nivel de participación que han mostrado los alumnos. Por primera vez en la CAV, ha tenido lugar una competición sobre destrezas y habilidades entre el alumnado de los centros de FP de los tres territorios históricos, en las familias de Fabricación Mecánica y Electricidad y Electrónica (Automatismos Industriales) e Imagen Personal.

La cita volvió a convertirse en unas gigantescas 'jornadas de puertas abiertas' en las que pudimos difundir de un modo satisfactorio todas las familias profesionales y la riqueza de la oferta de los centros vascos de Formación Profesional. Con esta nueva muestra, a la que acudieron representantes de centros de Finlandia, Dinamarca, México y Chile, hemos mostrado, una vez mas, la buena imagen que sigue teniendo la Formación Profesional en Euskadi.



José Antonio Campos Granados

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua
Consejero de Educación, Universidades e Investigación

Erakusketak baliabide teknikok eskaini zizkien bisitariei.

